


# Argitalpenak

## Diskoteka

IKER BARANDIARAN

### Musika geografikoa, umorez eta ironiaz jantzia

Karidadeko Bentakoek ez dute ostatu berean egon nahi, eta dagoeneko hirugarren bidaia luzea hasi dute. Ondo pasatzeko eta, zergatik ez, esperimintatzeko egin zuten saiakera eta "txaranga" hori oraindik ez da gelditu, jairik jai jarraitzen du. Lan honetan ere Goran Bregovic eta Emir Kusturicaren eskuetatik helduta Balkanetako doinu parranderoak ekarri dizkigute (*Herri galdua*, *Treneko koplak*); baina bestelako soinuak ere batu dituzte bidean: Italiako folkaren (*Larrosa beltza*) eta Greziakoaren (*Itsasontzi baten*) eragina dutenak; Karibeko erritmo beroago eta lasaigoak (*San Quirico*, *Atea itxi dut...*); baita doinu arabiarak (*Belannaldia*) edota andaluziar-mexikarrak (*Xoxua*) ere. Adina errebeldiaren aurrean gailentzen saiatzen bada ere, Maiak idatzitako kantuetan umorea eta ironia barra-barra daude.



San Quirico  
[Karidadeko Benta](#)

GAZTELUPEKO HOTSAK

Iraupena: 36'39"  
14,45 euro

JON MAIA - KARIDADEKO BENTA

### «Leku ezezagun batean gaude, etiketatzeko zaila, eta horrek balio handia du guretzat eta entzuleentzat»

"Adinaren kapritxoa da errebeldia". Euskal Herriko biztanleria zahartuz doala-eta, zer etorkizun du hemen errebeldiak?

(Barreak) Kontatzen dugu adin batetik aurrera jendea aldatuz doala, eta lotu egiten dela. Kontu serioei irakurketa ironikoa egiten diegu.

**Badirudi umore gutxi dagoela musikaren alorrean...**

Bai. Oso zaila da barreak aurkitzea kantuetan; eta hori pena da. Gure taldearentzat, aldiz, umorea ezaugarri garrantzitsuenetakoa da: kantuetan, jarreran, hitz egiteko moduan...

**Zer da musika alorretik harritu zaituena, bertsolaritzatik etorrira?**

Bertsolariok muga malguak ditugu. Saioetan, afarieetan... bertsotan aritzen gara. Bukaera non dagoen ez dugu jakiten askotan. Musika alorra, berriz, askoz metodikoagoa da, eta alderdi ezkutua ere badu: talde lanean egiten den prestaketa...

**Musika bidaiatzeko modu bat da zentzu zabalenean?**

Bai. Gure diskoak bidaiak dira. Kantuek lurralde askoren erreferentzia dute. Gure musika geografikoa



da. Musika kritikariek gu etiketatzeko zailtasunak izaten dituzte; leku ezezagun baten gaude. Eta horrek balio handia du guretzat eta entzuleentzat. Hiru lan kalean, eta kontzertu dezente bizkarrean. Dagoeneko eroso sentitzen al zara abesten?

Bai. Nabaritu dut bila-kaera, nahiz eta ez dudan nire burua abeslaritzat.

hogeita bost urte daramat bertsotan, eta oso zaila da klitxea kentzea. Ez nekien kantari moduan zer egin, eta zailtasunak izan nituen erritmoarekin, abestiak memorizatu beharrekin...

**"Gure jainkoak dira baleak, eta ilargiak jartzen ditu legeak". Inoiz esana dute gu garela Europako indioak. Badugu antzekotasunik beste indioekin?**

Badugu historia paralelo bat. 150 bat urtetan, XVI. eta XVII. mendeen artean bi nazioak gurutzatu egin ziren, eta hizkuntza eta interes komertzialak konpartitu genituen. 500 urte geroago, nazio txiki eta kolonizatu biok nortasun eta hizkuntza propioei eusten diegu.